



<b>Organoa</b>	<b>Euskaraldia. Sustapen Batzordea</b>	<b>Bilera-zenbakia</b>	2018/1
<b>Eguna</b>	<b>2018/02/08</b>	<b>Hasiera-ordua</b>	19:00
		<b>Amaiera-ordua</b>	20:15
<b>Tokia</b>	<b>Maria Agirre aretoa</b>		

### **Bertaratutakoak**

Marisa Aldamizetxebarria - **Gernika-Lumoko Udaleko Euskara arloko zinegotzia**

Jabi Enbeita - **Ekin/Bizkargi Autoak**

Ainara Artetxe - **Seber Altube ikastola**

Iñigo Magunagoikoetxea - **Gernika-Lumoko Udala**

Koldo Bilbao - **Gernika-Lumoko Institutua**

Iratxe Garmendia - **Gernika-Lumoko AEK**

Pernan Basterretxea - **Busturialdean Euskaraz Bizi elkartea**

Ager Zallo - **Maier eta MTC**

Pili Ibarra - **Gernika-Lumoko AEK**

Julen Madariaga - **Maier**

Marije Zubillaga - **Aita Villasante Udal Euskaltegia**

Irati Bidaurreta - **Gernika-Lumoko Udaleko EH BILDU taldea / Arrano Kultur Elkartea**

Bittor Zarrabeitia - **Gernika-Lumoko Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria**

Estiñe Astorkia - **Hitzargune programako koordinatzailea**

Eider Iturricastillo - **11 egun euskaraz ekimeneko dinamizatze arduraduna**

### **Ezin izan direnak bertaratu:**

Maddi Etxebarria - **Gernika-Lumoko Institutuko gurasoa** (beste bilera bat izan du, eta bertaratu denean bilera amaitu berri egon da)

Roberto Flores - **ELA sindikatua**

Xabier Gerrikabeitia - **LAB sindikatua**



## GAI-ZERREDA

1. AURKEZPENEA
2. EUSKARALDIA, 11 EGUN EUSKARAZ EKIMENA

### ADOSTASUNAK ETA ERABAKIAK:

#### 1. AURKEZPENEA

Marisa Aldamizetxebarriak hasiera eman dio bilerari, Euskaraldiaren baitan burutuko den 11 egun Euskaraz ekimena dela eta, batu garela bertan, eta eskerrak emanez bertaratutakoei.

Ondoren, bertaratutako kide guztiok norbere buruaren aurkezpena egin dugu.

#### 2. EUSKARALDIA, 11 EGUN EUSKARAZ EKIMENA

Bittor Zarrabeitiak eman dio hasiera puntu honi. Email bidez guztiei bidali zaiela proiektuaren txostena, eta bertan jorratuko duguna laburpen bat izango dela. Eider Iturricastillok proposamenaren aurkezpenari ekin dio.

*11 egun euskaraz* proiektuaren helburua herritar euskaltzaleak aktibatuta, hizkuntza ohiturak aldatzea da. Ekimen hori 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da. Euskal Herri osoko ekimena da, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Euskarabidea, Euskaltzaleen Topagunea eta Ipar Euskal Herriko ordezkariak izango dira koordinatzaileak. Euskal Herri osoko proiektua denez, material bateratua erabiliko dugu (aurkezpenetarako materiala, logoak, txapak, kartelak...) Proiektu hori Gernika-Lumora egokituko dugu, eta horretarako bertako egoera soziolinguistikoa hartuko dugu kontuan, eta partaide kopurua mugatuko dugu. Gernika-Lumok 16.952 biztanle ditu; %67a euskalduna da, %16a ia euskalduna eta %17a erdalduna. Gernika-Lumoko euskararen kaleko erabilera %49koa da.

Datu horiek izanda, zein izango da **GURE ERRONKA? 1600 AHOBIZI eta 500 BELARRIPREST?**

Kide batzuk proposatu dute erronka zabala izan ahal dela, eta komenigarria izan lifekeela adin multzoka sailkatzea. **Erronka hori aurrerago zehaztea proposatu da.**

**ERABAKIA:** Erronka hori aurrerago zehaztea proposatu da. Era berean zehazterakoak desglosatzea ere aurreikusi da (adib; adin tarteka...).

**Euskaraldia Batzordea osatzeko** puntuari ekin diogu. Honako hau da proposamena:

Oinarria, aurretik martxan dagoen Hitzarguneko talde eragilea da (euskalgintza): AEK euskaltegia, Seber Altube ikastola, *Busturialdean Euskaraz Bizi* elkarteak, Artez. Eta taldea osatzeko Euskaraldia Batzordea batuko zaio:

- Euskara zinegotzia eta Hizkuntza Normalkuntzarako teknikaria
- Udal taldeen ordezkariak (2 zinegotzi)
- *11 egun euskaraz* dinamizatzeko arduraduna
- Aita Villasante Udal Euskaltegia
- Gernikako Institutua
- Maier



- Ekin Autoak
- Sindikatuak
- Eta borondatea azaltzen duten **partikularrak**

Talde honen osajerari buruz, Gernika-Lumoko Institutuko zuzendariak komentatu du zentro barruan komentatu behar duela, eta bertan erabakiko dutela batzorde honetan parte hartu edo ez. Bestalde, komentatu da Institutuko Guraso Elkartearen parte hartzea interesgarria izan litekeela.

**ERABAKIA:** oro har proposamena ontzat eman da; horri gehitzeko, Institutuko Guraso Elkarteari Euskaraldia Batzordean parte hartzeko proposamena egin diogu.

**Partikularrei zelan egin deialdia? Prentsaurreko bat** egitea interesgarri ikusi da, eta era berean **deialdi zabala egin. Deialdi hori euskara hutsez edo ele bietan egin?** Eztabaida sortu da, batzuk euskara hutsez diote, eta beste batzuk ele bietan.

**ERABAKIA:** Helburua Euskaraldia Batzordean parte hartzea denez, **euskara husean** egitea erabaki da. Aurrerago belarriprest eta ahobizi parte hartzaileentzako deialdia zein hizkuntzatan egin aztertuko dugu. **Deialdi hori Euskaraldia Batzordeak sinatuta** egongo da, eta **logoak sartuko ditugu**, herritarrek Euskaraldia Batzordean nor dagoen bisualizatzeko, eta amaieran **eta zeu?** Jarriko dugu, herritarrek parte hartzera gonbidatuz. **Gonbitea atari guztietan jarriko da** euskaraz. **Prentsaurrekoa otsailaren 20an, 19:00etan Kultur Etxeko erakusketa aretoan** izango da.

Prentsaurrekoari dagokionez, Hitzargune koordinatzaileak proposatu du prentsaurrekoan teknikariek barik beste kide batzuk hitz egitea, herrian lidergoa duten beste erakunde batzuk, alegia.

Teknikari eta dinamizatzaileek prentsaurrekorako lehen zirriborroa prestatu dute, eta Euskaraldia Batzordeari aurkeztu, ekarpena jasotzeko eta azken bertsioa ontzat emateko.

**ERABAKIA:** proposamentutako ontzat eman da. Lehen prentsaurreko honetan nork/nortzuk hitz egin emailez adostekotan geratu gara.

Herrian sareak osatuta daudenez, gizarte esparruka jokatzeko proposatu da:

- Udal sailak eta langileak
- Hitzargune proiektua
- Euskalduntzea-Alfabetatzea
- Irakaskuntza
- Kultura
- Kirola

Azkenik, 2018ko kronograma orokorra azaldu da: lehen hiruhilekoan herrien izen-ematea, irailean herritarren izen-ematea (aurretik datu basea osatzen joango gara), irailetik azarora Ahobizi eta Belarriprest-entzako prestakuntza saioak, eta *11 egun Euskaraz* ekimena azaroaren 23tik abenduaren 3ra.

Euskaraldia Batzordea hilabete eta erdirik behin elkartzeko proposatu da. Bilera laburrak izango dira, erabaki zehatz batzuk hartzeko.



#### Egitekoak:

Azalpena	Epea	Arduraduna
<b>Gernika-Lumoko Euskaraldia Batzordea eratutzat ematea</b> (aktan jasotako erara)	<b>Otsailan 8an hasi eta 2018 urte osorako</b>	<b>Koordinatzaileak (Hizk. Norm. Tek. eta ekimeneko dinamizatzailea</b>
Gernika-Lumoko erronka: Ahobizi eta Belarriprest kopurua zehaztu. Proposamena: <b>1600 ahobizi eta 500 belarriprest</b>	<b>Hurrengo bileretan zehaztuko da</b>	<b>Euskaraldia Batzordea</b>
Partikularrei <b>Sustatzaile Batzordean parte hartzeko deialdia zelan egin?</b> Gonbidapen bidez (euskaraz egingo da).	<b>2018/02/14</b>	<b>Udaleko Normal. Teknikaria eta ekimeneko dinamizatzailea</b>
<b>Prentsaurrekorako dokumentua prestatu</b>	<b>2018/02/14</b>	<b>Udaleko Normal. Teknikaria eta ekimeneko dinamizatzailea</b>
<b>Dokumentuan ekarpenak egin eta ontzat eman</b>	<b>2018/02/16</b>	<b>Euskaraldia Batzordea</b>
<b>Prentsaurrekoa Kultur Etxeko erakusketa aretoan</b>	<b>2018/02/20 19:00etan</b>	<b>Euskaraldia Batzordea</b>
<b>Prentsaurrekoan nork hitz egin erabaki</b>	<b>2018/02/16</b>	<b>Euskaraldia Batzordea</b>